GA110 / 0137

ESKAINTZA

(2'27") B.Etxepare-G.Aresti
N. De Felipe

Erregeren abokatu zuzen eta nobliari,
Birtute eta on guztiez konplituari,
Bere jaun eta jabe Bernat Leheteri,
Bernat Etxeparekoak,
Haren zerbitzari txipiak,
Gogo onez goraintzi, bake eta osagarri.

SAUTRELA

(3'05") B.Etxepare-G.Aresti
N. De Felipe

Euskara da kanpora eta goazen denok dantzara.

O Euskara lauda ezak Garaziko herria,
Zeren handik hartu baituk behar huen grazia.
Lehenago hi baihintzen hizkuntzarik azkena,
Orain berriz izango haiz guztietan lehena.

Euskaldunak edonondik preziatu ziraden,
Baina haien mintzaeraz denak ziren burlatzen,
Inongo liburuetan eskribitzen ez baitzen;
Orain ikasiko dute nola gauza ona zen.

Euskalduna den guztiak burua altza beza,
Gorenean ikusiko baitu bere hizkuntza.
Printze eta jaun guztiek hura eskatzen dute,
Paperetan ikusita ikasi behar dute.

Gogo hori konplitu du Garaziko gizonak
Eta haren adiskide Bordelen dagoenak.
Lehen inprimitzailea euskararen hura da;
Euskaldunak eskerturik aurkitu behar gara.

¡Etai lelori bailelo leloa zarai leloa!
Euskara da kanpora eta goazen denok dantzara.

DOKTRINA KRISTIANA

(3'43") B.Etxepare-G.Aresti
B. Martinez

Munduan den gizon orok behar luke pentsatu
Jangoikoak nola duen batbedera formatu,
Bere irudi propiara gure arima kreatu:
Memoriaz, borondatez, adimenduz hornitu.

Mutil batek zerbitzutan ba darama urtia,
Soldatatxu bategatik hartzen pena handia,
Jangoikoak behar luke guk bezainbat balia;
Zerbitzatu behar dugu eman dezan gloria.

Ogirik ez dakust biltzen hazi erein gaberik;
Bakoitzak erein duena bilduko du komunki.
Obra onak izango du galardoa frankoki,
Bai eta ere bekatuak kastigua segurki.

Jangoikoa egun oro ongi ari baizaigu,
Guk ere behar genuke hartzaz ongi oroitu,
Hasiera eta fina hura dela pentsatu,
Goiza eta arratsaldian bere izena laudatu.

MUSUREN GALDATZEA

(2'14") B.Etxepare-G.Aresti
N. De Felipe

Jainkoak egun on bekar! Orain berdin garade;
Ni errege baldin banintz, erregina zinake.
Musu bat eman zaidazu, ez bekizu herabe;
Zugatik ditudan penek hala merezi dute.

Ea, hortik apart hadi; nor uste duk naizela?
Holako bat ez dut uste nik ikusi dudala.
Ez egin niri mesedez hitz zikinik horrela;
Beste bati eska zaiok; ez nauk uste duana.

Andre gaiztoa bazina, nik ez nuke konturik.
Zarena zaradelako, penatzen dut zugatik.
Ez dizut egiten gero eskari desonestik:

Musu batek ba zekiat, beste gauza nahi dik.
Andrea, igarri duzu nik hitzegin gaberik.
Bada, utzi nazak eta hago gero isilik.
Hain gaitza zarenez gero egingo dut besterik.

Bizi naizen egunetan, nik ez zaitut utziko.
Nik orain nahi dudana orain duzu egingo.
Uste diat egiazki ez haiz hi burlatuko.
Gizon honek hemen lotsaz ez nau orain beteko?
Ai, ene zer egingo dut? Ez zara isilduko!

Etai lelori bailelo, musu franko, bestea bego.
Andrea, mintza zakizkit beste behin emeago.

AMOROS SEKRETUKI DENA

(3'13") B.Etxepare-G.Aresti
N. De Felipe

Andre eder jentil batek bihotza dit lapurtu;
Hartzaz gogoratzen banaiz ez dezaket afaldu.
Nik hura bezala, berak ni behar nau maitatu.
Baina ez naiz atrebitzen, ez nezan gorrotatu.

Ene gogoa baleki, maite bide ninduke;
Ni errege baldin banintz, erregina litzake.
Berak hala nahi balu, elkarrekin geundeke;
Haren haurrak eta eneak nebarrebak lirake.

Niri gaizki egiteko hain ederrik sortu zen.
Egundaino larri nabil sufrimenduz penatzen.
Harekin nagoenean bihotza zait harritzen;
Neure penak esatera ere ez naiz ausartzen.

Artizarrak zeruetan abantaila darama;
Eta andreen artean ni penatzen nauena.
Bere edertasunean zoroturik narama.
Zoriontsua da haren besartean datzana.

LANTZEKO IHAUTERIA

(4'08") Herrikoa

MOSEN BERNAT ETXEPARAREN KANTUA

(3'27") B.Etxepare-G.Aresti
N. De Felipe

Mosen Bernat, jakin bahu han zer gertatuko zen,
Bearnora joan gabe geldituko hintzaden.

Heldu behar duen gauzan ez da eskapatzerik.
Beste kulparik ez nuen ongia egin baizik,
Bidegabeak hartu nau bide okerretatik:
Erregeri gaizki saldu nindioten itsurik.

Erregek agindu zidan joateko bertatik.
Hasarretan zegoela, baina nik ez kulparik.
Etsaiei ez nien eman malizian lekurik,
Harengana joan nintzen ihes egin gaberik.

Ene oinez jausi nintzen etsaiaren menean,
Kulpa aurkitu didate ongia eginean.
Haien pean ez banengo, nengoke zuzenean;
Baina preso nadukate kartzela sakonean.

Mosen Bernat pentsa ezak kartzela gaitza dela,
Bertako pena gogorrak gaitzagoak direla.
Han barnean dagoenak ez dauka nork kontsola.
Ba dirudi ez direla amaituko sekula.

Beti da libertatea gauzarik hoberena,
Eta preso egotea penarik handiena,
Ni bezala ez dadila, otoi, inor engana,
Ez eta hitz alferretan fida ere gizona. Amen.

KONTRAPAS

(3'06") B.Etxepare-G.Aresti
I.Heredia

Euskara, irten hadi kanpora!

Euskaldunen herria benedika dadila;
Euskarari hartu dio behar duen guztia.

Jende askok uste zuten ezertako ez zela;
Orain aitortuko dute enganatu zirela.

Euskara, irten hadi mundura!

Hizkuntzetan izan hintzen estimatze gutxitan;
Orain berriz hik behar duk ohorea denetan.

Euskara, habil mundu guztira!

Besteak etorri dira bere goien gradora;
Orain hura iganen da beste denen gainera.

Euskara, irten hadi kanpora!

Euskaldunak preziatzen euskara ez jakin arren;
Denek ikasiko dute orain euskara zen den.

Euskara, irten hadi plazara!

Oraindaino egon bahaiz inprimatu gaberik,
Aurrera ibiliko haiz mundu guztietatik.

Euskara, irten hadi mundura!

Ez bat ere hizkuntzarik, ez frantzes ez besterik,
Orain ez da aurkituko euskararen parerik.

Euskara, irten hadi dantzara!

BOSTEKOARENA

(3'07") S.eta K. Gimenez, B.Martinez
N. De Felipe

AMOROSEN DISPUTA

(3'13") B.Etxepare-G.Aresti
N. De Felipe

Maitea mesedez, parti gaitezen,
Jendea hasi da gaizki esaten.
Zure kausagatik naute iraintzen,
Eta bide batez barre egiten.

Ai ene maitea, nago galdua!
Zuregatik nago asaldatua.
Zu gabe nengoke hain penatua.
Horren laster utzi nahi nuzua?

Pitxer ibilia erraz da hausten;
Zuk ni lotsa handiz nauzu betetzen.
Joan zaitez nigandik, dizut eskatzen;
Inork ez dit niri larrua hartzen.

Jainkoaren beldur zara jarria?
Hala despeditzen nauzu maitia?
Utzi baino lehen neure etxia,
Egin behar duzu ene nahia.

Orain nahi nauzu hemen bortxatu?
Gaurkoz naikoa da, utzi nazazu.
Beste aldi batez joango natzaizu;
Orduan nahia egingo duzu.

Antigualetik dator esana,
Inork uzten badu berea dena
Nahi duenean ez dadukala.
Hitzetatik goazen eginetara!

Orain egin duzu nahi duzuna;
Ekarri didazu lotsakizuna.
Madarikatzen dut neure fortuna,
Zugana etorri naizen eguna.

Zugatik maitea pena dadukat;
Kontsolamendurik ez dut zuretzat.
Hartu behar nauzu adiskidetzat;
Izango nintzake senar gaizto bat.

ANDREEN FABORE

(3'35") B.Etxepare-G.Aresti
N. De Felipe

Gizon asko dabil hortik andrez gaizki esaten,
Isilikan egotea hobeki litzateke:
Gizonekin baizik hutsik ez baitute egiten.

Ez dut ikusi andreak bortxaturik gizona,
Baina bera zoraturik andreari darraika.
Zenbait andre heltzen bada maitasunez hargana,
Zein gizonek andreari eman dio ogena?

Munduan ez da gauzarik hain eder ez plazentik,
Nola andrea gizonaren pean biluzkorririk;
Beso biak zabaldurik dago errendaturik,
Gizonak egin dezala hartzaz nahi duenik.

Dardoaz joko balio gorputzaren erditik,
Nork esan beharko luke beragatik gaizkirik?
Dardoa ematu eta zauria sendaturik,
Elkarrekin geratuko dirade baketurik.

JUDIZIO JENERALA

(9'19") B.Etxepare-G.Aresti
B. Martinez

Arma, arma! Mundu oro judizio handira!
Zeru eta lur guztien kreadore handia
Lur guztia jujatzera rigoroski heldu da;
Nola gauden apaindurik dezagula begira.

Manamendu bidaltzen du mundu guztietatik,
Jende guztiak daduzka Josafaten bildurik,
Inon ere, inor ere eskapatu gaberik.
Zeru eta lur guztia daude ikaraturik.

Heriotza manatzen du ezer falta gaberik
Hil guztiak dakazela berriz ere bizirik,
Guztiok jarriko gaitu bi lekutan hertsirik:
Glorian ezpa infernuan; ez da eskapatzerik.

Manatzen du infernua handi eta bortizki
Han direnak datozela luzamendu gaberik;
Arima eta gorputzetan nahi ditu ikusi,
Bertan emango zaiena ongi dute merezi.

Jainkoa hasarraturik egongo da gainetik,
Irestera apaindurik infernua azpitik,
Deabrua akusatzen ezkerreko aldetik,
Bekatuak eskuinetik mintzatuko publiki.

Non dirateke orduan hemengo jaun erregiak,
Duke, konde, markes, zaldun eta beste jaun nobliak,
Eta haien armadako gizon sendoen balentiak?
Ordu hartan balioko ez du haien potentziak.

Jurista [illegible]
Prokura [illegible]
Ordu ha [illegible]
Eta gutxi balioko kautela eta parleriak.

Aita Santu, kardinale, apaiz eta prelatuak
Berez eta bere ardiez eman behar han kontua.
Egun hartan handiena izango da erratua,
Eta berdin jujatuko handia eta txipia.

Seinaliak agertuko dira bertan tristerik,
Elementak ibiliko dira tribulaturik:
Eguzkia, hilargia odoletan etzanik,
Arrainak irtengo dira lurrera itsasotik.

Eta lurra izugarri dena ikaraturik,
Arbolek ekartzen dute odolezko izerdi,
Mendiak eta harriak elkar zatikaturik;
Lur guztia jarriko da suak arrasaturik.

Mintzatuko da tronpeta mundu guztietatik:
"Hilak jaikiko dirade haien hobietatik,
Arima eta gorputzetan bizitzara pizturik".
Denak hara behar dugu eskusatu gaberik.

Ez da asko luzatuko exekuzionia;
Bertan zaie irekiko lurra ordu berian,
Su harekin iretsiko guztia barrenian.
Hau izango bekatoren azken-irabazia.

Eguzkia egongo da orienten geldirik,
Hilargia okzidenten begiz begi jarririk.
Egun honek iraungo du orduan eta beti,
Halabaina ez da izango hemen gauza bizirik.

ANTON LATXA: gitarra akustikoa eta tronboia
BIXENTE MARTINEZ: gitarra elektrikoa, txistua, txirula eta mandolina
KARLOS GIMENEZ: perkusioa, klarinetea, flautak, saxofoia eta teklatuak
NATXO DE FELIPE: boza, gitarra eta soinuak
SANTI: kontrabaxua, bonbardinoa eta boza
JUAN MARI BELTRAN: dultzaina
PEPE FERNANDEZ: grabazio-teknikoa
JOSEPE ZUAZO: azala
ALFREDO G. FRANCES: Fotoa
O S K O R R I : Konponketak

H E L B I D E A: Loteria, 4 - 4°Ezk. (Bilbao-5)

S 82479

CBS

Estéreo

Este disco estéreo puede ser también reproducido en un tocadiscos monoaural.

CBS es la marca registrada de CBS, Inc.
© 1977 CBS / SGAE ℗ 1977 CBS

Discos CBS, S.A.
Avda. Generalísimo, 25 / Madrid-16